

EUSKO JAURLARITZA

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA**

*Hezkuntza Sailburuordetza
Hezkuntza Ikuskaritza Nagusia*



GOBIERNO VASCO

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA**

*Viceconsejería de Educación
Inspección General de Educación*

HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN URTEKO PLANA

2014 – 2015 IKASTURTEA

HEZKUNTZA IKUSKARITZA E.A.E.



ER-0977/2008



1.- SARRERA

Hezkuntza Ikuskaritzaren planak ikastetxeetan eta Administrazioiko beste erakunde batzuetan egiten dituen jarduerak gauzatzeko bideak dira. Halaber, jarduera horiek egitea ahalbidetzen duen zerbitzuaren barne antolaketa azaltzen dute.

Ikuskaritzaren jarduerak lau esparrutan sartzen dira:

- Ebaluazioa.
- Ikuskatzea.
- Aholkularitza, orientabidea eta informazioa.
- Lankidetzak.

Ikastetxeetan esku hartuz, irakaskuntzaren kalitatea eta zuzentasuna bermatzeko faktorea izateko hezkuntza-legeriak ematen dion funtzioari ematen dio Hezkuntza Ikuskaritzak erantzuna.

Ikastetxeei dagokienez, Hezkuntza Ikuskaritzaren esku-hartzeak ez dira araudia betetzen den ikuskatzera mugatu behar; horretaz gain, haien hezkuntza-proiektuak aurrera eramateko prozesuan laguntza eman behar diete ikastetxeei eta proiektu horiek hobekia izateko izan behar dute lagungarri, norberak bere burua ebaluatzeko prozesuak sustatuz eta kanpo ebaluaziokoetan parte hartuz. Hitz batean, ikastetxeen proiektuen funtsezko helburuari, hots, ikasteko prozesuetan arrakasta izan dezaten eta haien emaitzak hobekia izan daitezen ikasle guztiei kalitateko hezkuntza-erantzuna emateari, balioa eransteko izan behar dute lagungarri.

Hezkuntza Administrazioari eta beste erakunde eta erabiltzaile batzuei dagokienez, egiten diren errekerimendu eta eskaeretan lankidetzan aritzea, esku-hartzea gauzatzea eta, araudiaren arabera, eskatzen zaizkion txostenak ematea dira Hezkuntza Ikuskaritzaren funtzioak.

Hainbat urtetako planifikazio estrategiko batean sartzen diren urteko planen bidez planifikatzen ditu bere esku-hartzeak Hezkuntza Ikuskaritzak. Zentzu horretan, 2014-2015eko Urteko Plan hau 2014-2017ko Hiru Urteko Plan Orokorren lehen kurtsoari dagokio. Urteko Plan honen 3. eta 4. ataletan, helburu eta jarduerari buruzkoetan, Hiru Urteko Plan Orokorren helburuak gauzatzeko esku-hartzearen oinarritzko ildoei lotutako jarduerak adierazi eta zehazten dira.

Horiek horrela, Hiru Urteko Planaren helburuak betetzeko lehen urratsa da 2014-2015eko Urteko Plana. Zentzu horretan, Urteko Planaren jarduerak ondorengo alderdiei begira bideratu behar dira:

- Ikastetxeak hobekia izateko ematen duten laguntza finkatu eta indartzea, pertsonen ebaluaziotik eta kanpo ebaluazioetatik abiatuz.
- Esleitutako ikastetxeetan ikuskariaren ikuskatze-jarduera sustatzea, esku-hartze globalaren metodologia batekin.
- Ikuskariaren prestakuntza hobetzea, haren garapen profesionala ahalbidetzeko eta, horrela, barne eta kanpo hartzaileen eskaerei eraginkortasun handiagoz erantzuteko.
- Hezkuntza Ikuskaritza osatzen duten pertsona guztien parte-hartze aktiboa eta inplikazioa sakontzea Urteko Plana aurrera eraman eta hobetzeko prozesuan.
- Euskararen erabilpena sustatzea, Ikuskaritzan hizkuntz normalkuntzari laguntzeko asmoz.
- Hezkuntza Ikuskaritzaren kudeatzeko sistema bikaina izateko prozesuan aurrerapenak egin eta sakontzea, zerbitzua hobeto emateko.

Ondorengoak dira Urteko Plan honen jardueretan azaltzen diren Hiru Urteko Plan Orokorren berrikuntza esanguratsuenak:

- Erasmus Plus programa europarrean parte hartzea.
- Hasiera ematea irakaskuntza-funtzioaren ebaluazioa diseinatu eta gauzatzeko prozesuari.

- Hezkidetzari eta genero-indarkeriaren prebentzioari buruzko gida-planean agintzen zaizkigun jardueren jarraipena egitea eta, gida-plan hori ezartzearen ondorioz, berdintasun-batzordea sortzea.
- Ikuskaritzaren atari elektronikoa, Hezkuntza Ikuskaritzaren kudeaketan erabiltzen diren tresna informatiko guztiak jasotzen dituen, diseinatu eta garatzeko prozesua.

Urteko Plana egiteko, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Sailburuordetza eta Zuzendaritza desberdinen eskaerak, Lurralde Arteko Koordinazio Batzordearen eta Zonalde Burutzen arteko bileran egindako balorazioak, Ikuskaritzaren jardueren hartzaileak zein mailatan dauden pozik jakiteko inkestak emaitzak eta egindako auditorienak hartu dira kontuan.

Gainera, 2012-2016ko gobernu-programa, hezkuntza-sistemaren motorra den aldetik bikaintasunaren aldeko konpromisoari buruzkoa batez ere, hartzen da kontuan, berriztapenaren sustatzaileak diren aldetik zuzendaritza-taldeen eta irakasleen garapen profesionala hobetzera zuzendutako jardueren bidez Hezkuntza Ikuskaritzaren esku-hartzea indartuz. Hori guztia hezkuntza-sistemaren ardatza diren ikasleen onerako.

Haren garapena ahalik eta eraginkorra izatearen eta jarduteko irizpideak bateratzearen garrantzia azpimarratzen jarraitu behar du 2014-2015eko Urteko Planak. Jarduerak lurraldean eta zonaldean banatu beharko dira, lan-kargen arteko oreka eta eginkizunak gauzatzeko orduan eraginkortasunez jokatu behar izatea kontuan hartuz.

Ikuskarien prestakuntzak eta gaurkotzeak funtsezko garrantzia dute, aginduta dituzten funtzioak eraginkortasunez gauzatzeko orduan. Zentzu horretan, lana orientatu eta martxan jartzeko irizpideak bateratze aldera, ahaleginak areagotuko dira. Jarduera garrantzitsuenei dagokienez, nola gauzatzen ari diren ezagutzeko, hobekuntza-proposamenak zehazteko eta prestakuntza-premietarako prozedurak ezarriko dira.

Azkenik, UNE-EN ISO 9001:2008 arauaren arabera berritu du, 2013-2014ko ikasturtean, ISO ziurtagiria Hezkuntza Ikuskaritzak. Aipatutako ziurtagiriarekin jarraitzeaz gain, Hezkuntza Ikuskaritzaren kudeaketa egiteko sistema EFQM eredura bideratze aldera lan egiten hasiko da.

2.- KALITATEARI BURUZKO POLITIKA*

Hezkuntza Ikuskaritzaren Kalitateari buruzko politika, Lurralde Arteko Koordinazio Batzordeak eta Zonalde Burutzek 2006-2007ko ikasturtean adostutako UNE-EN ISO 9001:2008 arauaren baldintza dena, ondoren adierazten dena da:

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza Sailburuordetzaren menpeko Hezkuntza Ikuskaritzaren ustez, bere lana beharrezkoa da hezkuntza-sistemak, oro har, eta ikastetxeek, bereziki, kalitatez funtzionatzeko.

Horregatik, haren jarduerak, eman zaizkion ebaluazio-, kontrol-, aholkularitza- eta lankidetzafuntzioak, behar bezala kudeatzea premiazkoa da eta ikuskari bakoitzak kontuan hartu behar du eguneroko lanean, Hezkuntza Ikuskaritzaren funtzionamendu ona segurtatzeko eta hezkuntza-erkidegoa, Hezkuntza Administrazioa eta Hezkuntza Ikuskaritzako partaideak berak ahalik eta gustuen egon daitezzen.

Hezkuntza Ikuskaritzan zerbitzuak ematen dituen pertsonala (ikuskariek eta administrazio-pertsonala) haren aktiborik nagusia da. Ikuskaritza Nagusiak eta burutzek, beren lidergoaz baliatuz eta hierarkiaren, parte-hartzearen, espezializazioaren, profesionaltasunaren, talde-lanaren eta emaitzen ebaluazioaren printzipio antolatzaileen arabera, pertsonala motibatua eta pozik egon dadin egingo dituzte ahaleginak, pertsonal horren giza garapen eta profesionalaren alde lan eginez.

Hezkuntza Ikuskaritzak, Ikuskaritzaren eredu bat finkatzeko prozesuan, bere gain hartzen du

antolaketa eraginkor bat izatearen konpromisoa, ondorengo ezaugarriak izango dituen: haren profesionalak parte hartuko dute eskaintako jardura eta zerbitzuen eguneroko kudeaketan, prozesuak etengabe hobetzera bideratuko da eta hezkuntza-erkidegoa, Hezkuntza Administrazioa eta Hezkuntza Ikuskaritza bera ongi senti daitezzen behar diren gestioak egingo ditu.

Antolaketaren helburuak betetzen direla segurtatzeko asmoz, Hezkuntza Ikuskaritzak kalitatea kudeatzeko sistema bat ezarri du, Ikuskaritzaren jardura gidatu behar duten estrategiak kontuan hartuko dituen. Hauek dira:

- Erkidegoaren premia eta itxaropenei erantzuna ematea: ikastetxeei, ikasleei, gurasoei eta Hezkuntza Administrazioaren arduradunei, beren funtzioetan jarduten dutenean.
- Arreta hobea ematea hezkuntza-erkidegoko kidek egindako eskaerei.
- Hezkuntza Ikuskaritzari eta, bere funtzioak betetzean, egiten dituen jardueri eragiten dieten legezko eta arauzko baldintzak betetzea.
- Ikastetxeetara egiten diren bisiten kalitatea hobetzea.
- Era planifikatuan, koordinatuan eta taldean lan egitea.
- Behar diren planen bidez Ikuskaritzako pertsonal guztiaren etengabeko prestakuntzari eta parte-hartze aktiboari laguntza ematea.
- Hezkuntza Ikuskaritzaren barne- eta kanpo-komunikazioaren bideak hobetzea.
- Behar den malgutasunaz jokatzeko, Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueri dagozkien eskakizun eta premietara egokitzeko.
- Ikuskaritzaren funtzionamenduan definitutako prozesuetan dauden akatsen arrazoiak identifikatu eta ezabatzea, prozesu horiek eraginkorragoak izan daitezzen.

Kalitate-politika honek behar den erreferentzia ematen du, Ikuskaritzaren jarduran nagusi diren estrategiak ezarri eta berrikusteko. Estrategia horiek kalitatearen helburuetan konkretatzen dira.

Hezkuntza Ikuskaritzak behar diren bideak ezarri ditu, politika hori pertsonal guztiari jakinarazteko eta hark uler dezan, eta sistema berrikustean, aldizka berrikusten dela bermatzen du.

* Berrikuste prozesuan, 2014-2017 Ikuskaritzaren Hiru Urteko Plan Orokorra indarrean dagoen bitartean.

3.- HELBURUAK

Urteko Plana eta berorretan zehazten diren jarduerak 2014-2017ko Hiru Urteko Plan Orokorren helburuak betetzera bideratuta daude eta Hiru Urteko Plan Orokor horretan definitutako esku hartzeko oinarrizko ildoekin bat datoz (Hiru Urteko Plan Orokorren eranskina).

Ondoren, jarduera horiek, Hiru Urteko Plan Orokorren helburuak eta esku hartzeko aipatutako ildoak azaltzen dira.

HELBURU OROKORRAK 2014-2017 HIRU URTEKO PLANA	ESKU HARTZEKO ILDO OROK. HIRU URTEKO PLAN OROKORRA	JARDUERAK 2014-15 IKASTURTEA
<p>1. Ikastetxeak, zuzendaritza-funtzioa eta irakaskuntza-funtzioa ebaluatzea eta hezkuntza-sistemaren kanpo ebaluazioetan parte hartzea.</p>	<p>Ikastetxeak hobetzen laguntzeko kanpo ebaluazioak.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Hobekuntza Planen jarraipena • 2015eko diagnostiko-ebaluazioaren kontrola • Lehen Hezkuntzako 3.eko ebaluazioan parte hartzea.
	<p>Ikastetxeak hobetzen laguntzeko zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ikastetxe bakoitzaren egoeraren arabera zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa. • Zuzendaritza-funtzioa ebaluatzeko araudia gaurkotzea.
	<p>Irakaskuntza-funtzioaren ebaluazioa, hobeto betetzen laguntzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Irakasleen perfila egiteko prozesuari hasiera emango dion lan-talde bat sortzea.
<p>2. Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren kanpo eta barne hartzaileen premiei eraginkortasunez erantzutea.</p>	<p>Hartzaile desberdinei eman beharreko erantzuna hobetzea, Ikuskaritzaren esku hartzearen kalitatea areagotzeko lagungarri izango diren estrategiak ezarriz.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ikuskaritzaren txostenak baloratzeko prozedurak diseinatu eta ezartzea eta berrikusi eta hobetzeko prestakuntza planifikatzea.
<p>2. Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren kanpo eta barne hartzaileen premiei eraginkortasunez erantzutea.</p> <p>3. Hezkuntza-erkidegoaren eskubide eta betebeharrak bermatzeko, indarreko araudia beteko dela ikuskatzea.</p> <p>4. Hezkuntza Sailaren programa eta proiektua ikastetxeetan nola garatuko diren kontrolatu eta ebaluatzea.</p>	<p>Ikastetxeen ikuskatzea: erreferentziako ikuskariak esku hartze globaleko metodologia batekin jardutea, ikastetxeen funtzionamendua hobetzen laguntzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Hamaika Eskuren (1) jarraipena • Programazioen jarraipen eta ebaluazioa, irakasleen prestakuntza eta ikasleen ebaluazioa. • Ikasturtearen hasierako esku-hartzea. • Sailaren eskaerak (arau-kontrola eta programen jarraipena).

HELBURU OROKORRAK 2014-2017 HIRU URTEKO PLANA	ESKU HARTZEKO ILDO OROK. HIRU URTEKO PLAN OROKORRA	JARDUERAK 2014-15 IKASTURTEA
<p>2. Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren kanpo eta barne hartzaileen premiei eraginkortasunez erantzutea.</p> <p>3. Hezkuntza-erkidegoaren eskubide eta betebeharrak bermatzeko, indarreko araudia beteko dela ikuskatzea.</p>	<p>Eskola-giroaren jarraipena: elkarbizitza kudeatzea, hezkuntza-erkidegoaren eskubide eta betebeharrak beteko direla bermatzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Eskola-jazarpenaren kasuen jarraipena eta ikastetxeetako elkarbizitzaren kudeaketa. • Eskola-jazarpenerako protokoloa gaurkotzea. • Elkarbizitza eta Hezkidetzaren Planen gida egitea.
<p>5. Ikuskariak Hiru Urteko Plan Orokor honen ondoriozko premien arabera prestatzea.</p>	<p>Prestakuntza hobetzea eta Ikuskaritzaren garapen profesionala sustatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Urteko Planen jarduera-ildoei zuzenean lotutako alderdiei buruzko informazio- eta prestakuntza-saioak antolatzea. • Ebaluazioari eta ikastetxeetan egin beharreko esku-hartzeari lotutako alderdiei arreta berezia ematea.
<p>6. Hizkuntz normalkuntzari laguntzeko asmoz, euskararen erabilpena sustatzea.</p>	<p>Euskaraz komunikatzea sustatu eta hobetzeko jardueren planifikazioa.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ikuskaritzan euskara erabiltzeko batzordea sortzea. • Hezkuntza Ikuskaritzaren prestakuntzarako IRALE programak ematen dituen aukerak erabiltzea.
<p>7. Hezkuntza Ikuskaritza antolatzeko eredia berrikustea.</p>	<p>Ikuskaritzak hobeto funtzionatzeko antolaketa-eredua gaurkotzea eta ikuskarrien inplikazioan eta esku-hartzean sakontzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ikuskaritzaren araudia aztertu eta egitea. • Zonalde burutzen merezimendu-lehiaketa. • Ikuskari guztien parte hartzea, ikuskaritzaren jardura kudeaketan
<p>8. ISO 9001:2008 ziurtagiriarekin jarraitzea eta zerbitzua hobeto emateko kudeaketa-sisteman aurreratzea.</p>	<p>Ikuskaritzak hobeto funtzionatzeko kudeaketa-sistema berrikustea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ikuskaritzaren politika eta estrategia aztertu eta egokitzea. • Prozesuen mapa, kodeak eta azpiprozesuen izenak berrikustea. • V92 aplikazioan kudeaketa apur-apurka ezartzea. • Ikuskaritzaren atari berria diseinatu eta espermentatzea. • Hezkuntza Ikuskaritza Euskalit-ekin lankidetzan ari diren kideen kolektiboan integratzea.



HELBURU OROKORRAK 2014-2017 HIRU URTEKO PLANA	ESKU HARTZEKO ILDO OROK. HIRU URTEKO PLAN OROKORRA	JARDUERAK 2014-15 IKASTURTEA
9. Ikuskaritza-funtzioa ebaluatzea.	Ikuskariaren garapen profesionala hobetzeko, ikuskaritza-funtzioa ebaluatzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Zerabitu-eginkizunetan ari diren ikuskariei prozedura aplikatzea.
10. Hezkuntza-munduko beste organismo edo erakunde batzuekin lankidetzan jarduteko ildoak ezartzea.	Berriztapenari eta praktika onen trukatzeari laguntzeko, beste ikuskaritza eta erakunde batzuekin lankidetzan aritzea. Erasmus Plus programan parte hartzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Erasmus Plus-en parte hartzeko eskaera egitea. • Ekimenari jarraipena emateko harreman eta itunak ezartzea. • Beste ikuskaritza eta erakunde batzuekin praktika onak trukatzea.

4.- 2014-2015eko IKASTURTEAN ESKU HARTZEKO OINARRIZKO ILDOAK

Hiru Urteko Plan Orokorraren esku hartzeko oinarrizko ildoak erreferentzia-markoa dira eta erreferentzia-marko horretan aurreikusitako hiru urteko helburuak lortzeko lagungarri diren urteko jarduerak sartzen dira.

4.1 Ikastetxeak hobetzen laguntzeko kanpo ebaluazioak.

Hezkuntza Ikuskaritzaren funtzioen artean, besteak beste, hezkuntza-sistemaren eta integratzen duten elementuen ebaluazioan parte hartzea da. Zentzu horretan, EAEn errolda-izaera batekin egin diren azken kanpo ebaluazioetan Ikuskaritzak izan duen funtzio inportantea azpimarratu behar da. Alde batetik, probak ikastetxeen lagin batean nola aplikatu diren kontrolatu du Ikuskaritzak eta, bestetik, ebaluazioaren emaitzei erantzuna emateko ikastetxeek egindako hobekuntza-planak baloratu ditu.

Ikasturte honetan jarduera hauek egingo dira:

- Hobekuntza-planen jarraipena.
2015eko diagnostiko-ebaluazioaren jarraipena egiteko batzordeak jarri beharko dituzte funtzionamenduan 2014-2015eko ikasturtearen lehen hiruhilekoan ikastetxeek. Halaber, ikastetxearen urteko planetan aurreikusitako jarduerak, Hezkuntza Ikuskaritzak onartu dituen 2013ko diagnostiko-ebaluazioaren emaitzen ondoriozko hobekuntza-planetatik abiatuz, ezarri beharko dituzte ikastetxeek. Erreferentziako ikuskariek hobekuntza-plan horiek praktikan jartzeko prozesuaren jarraipena egingo dute.
- 2015eko diagnostiko-ebaluazioaren kontrola.
Erreferentziako ikuskariek egingo dute 2015eko diagnostiko-ebaluazioa aplikatzeko prozesuaren kontrola, zehazten diren argibideen arabera.
- Lehen Hezkuntzako 3.eko ebaluazioan parte hartzea.
Gaurko Hezkuntzaren lege organikoa indarrean sartu denetik, eta aurreikuspenen arabera, Lehen Hezkuntzako 3. kurtsoko ikasleentzako kanpo ebaluazio bat egingo da 2014-15eko ikasturtean. EAeko Hezkuntza Ikuskaritzak parte hartuko du, zehazten den eran, proba hori egiteko prozesuan.

4.2 Ikastetxeak hobetzen laguntzeko zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa.

Zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa egiten bost ikasturte daramatza Hezkuntza Ikuskaritzak eta funtzio hori hobeto egiteko laguntza ematea du ebaluazio horrek helburu, argitara eman diren ebaluazio-prozesuari buruzko aginduak erreferentziazat hartuz.

Ikasturte honetan jarduera hauek egingo dira:

- Zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa, ikastetxe bakoitzaren egoeraren arabera.
Ikasturte honetan lau ebaluazio-egoera gertatuko dira:
 - a) 2014an izendatuak izan diren eta lehen agintaldiari hasiera ematen dioten zuzendariekin gauzatuko dena.
 - b) 2013an izendatuak izan diren eta lehen agintaldiaren bigarren kurtsoan dauden zuzendariekin gauzatuko dena.
 - c) Lehen aldiz 2010eko ikasturtean izendatuak izan diren eta karguan jarraitzen duten zuzendarien bigarren agintaldiaren lehen kurtsoa.
 - d) Lehen aldiz 2009ko ikasturtean izendatuak izan diren zuzendariaren bigarren agintaldiaren bigarren kurtsoa.

Kasu bakoitzean “zuzendaritza-funtzioan aritzea ebaluatzeko gidan “ (AR 0201 20) adierazten den prozeduraren arabera jokatu da.

Bestalde, 2013-2014ko ikasturtean hasitako metaebaluazio-prozesuetatik abiatuz, aldaketak gertatu ziren prozesua eta lan-tresnak diseinatzeko orduan. 2014-2015eko ikasturtean dokumentazioa berrikusten jarraituko da, plantilako kide guztiei zuzendutako prestakuntza emango da eta ikasturtean prozesuan egiten diren jardueren jarraipena egingo da.

- Zuzendaritza-funtzioa ebaluatzeko araudiaren gaurkotzea.

Ebaluazio-taldeek eta zuzendariak selekzionatzeko azpiprozesuko ekipoek planteatutako hobekuntza-proposamenetatik abiatuz eta gaur egun indarrean dagoen hezkuntzaren lege organikoa argitara eman izanaren ondoriozko ikuspegi berria kontuan hartuta, indarrean dagoen legeria arautzailea gaurkotzeko proposamen bat egingo da.

4.3 Irakaskuntza-funtzioaren ebaluazioa, hobeto betetzen laguntzeko.

Azken ikasturteetan, EAEko Hezkuntza Ikuskaritzan funtsezko aurrerapenak gertatu dira zuzendaritza-funtzioa ebaluatzeko prozesuak diseinatu eta ezartzeko prozesuan, baita, diagnostiko-ebaluazioari buruzkoan batez ere, ikastetxeen kanpo ebaluazioekin lankidetzan jardutekoan ere.

Prozesu horiek finkatu ondoren eta beroriek aplikatzean sortu den ezagutzatik abiatuz, zentzu horretan aurrerapen bat proposatzeko baldintzetan dago EAEko Hezkuntza Ikuskaritza; hots, irakasleen perfila egiteko prozesuari hasiera emango dion eta, hurrengo ikasturteetan, irakaskuntza-funtzioaren ebaluazioari lotutako prozesuak diseinatu eta ezartzeko aukera emango duen lan-talde bat sortuko da 2014-2015eko ikasturtean.

Horregatik, ikasturte honetan jarduera hau egingo da:

- Irakasleen perfila egiteko prozesuari hasiera emango dion lan-talde bat sortzea.

4.4 Hartzaille desberdinei eman beharreko erantzuna hobetzea, Ikuskaritzaren esku-hartzearen kalitatea areagotzeko lagungarri izango diren estrategien bidez.

EAEko Hezkuntza Ikuskaritzaren errendimenduaren maila zein handia den egiaztatu da 2013-2014ko ikasturtean, programatutako eta geroago sortu diren jardueren % 100 egin baitira praktikan.

Une honetan gure jardueren kalitatea hobetzeko prozesuan sakontzen jarraitu behar dugu. Txostenen kalitatea azpimarratuz emango zaio prozesu horri hasiera, haien helburuarekin behar bezala bete dezaten. Horrela Ikuskaritzaren hartzaille desberdinei eman beharreko erantzuna hobetzeko lagungarri izango dira.

Ikasturte honetan jarduera hau egingo da:

- Ikuskaritzaren txostenak baloratzeko prozedurak diseinatu eta ezartzea eta berrikusi eta hobetzeko planifikazioa.

Horretarako, azpiprozesu nagusien ekipo arduradunek ikasturtean zehar ildo horretan egingo dute lan, Ikuskaritzak egindako txostenak baloratzearen bidez, geroago behar diren prestakuntza-jarduerak sustatzeko.

4.5 Ikastetxeak ikuskatzea: esku-hartze globaleko metodologia batekin erreferentziako ikuskaria aritzea, ikastetxeen funtzionamendua hobetzen laguntzeko.

Indarreko hezkuntza-legeriak ikastetxeen funtzionamendua ezagutzea exijitzen dio Hezkuntza Ikuskaritzari, ezagutza hori hezkuntza-sistema hobetzen laguntzeko oinarria den aldetik. Ikastetxeetan egiten dituen jarduera guztiak ikuspegi global eta sistemiko batetik integratu eta

haien artean erlazionatzen diren esku hartzeko eredu baten aldeko aukera egin du EAEko Hezkuntza Ikuskaritzak. Horrela ikastetxeak ezagutzea lortzen du eta, ezagutza horretatik, badu haien funtzionamendua hobetzen laguntzeko proposamenak egiteko aukera.

Eredu horren arabera, ikastetxean egin beharreko jarduera planifikatuko du erreferentziako ikuskari bakoitzak, aurreko ikasturtean ikastetxearen jarduerari buruz egindako balorazioetan antzeman diren zailtasun edo hobekuntza-arloetan oinarritutako helburuen bidez.

Ikasturte bakoitzaren bukaeran helburu horiek zein mailatan lortu dituen baloratuko du, balorazioak eta hobetzeko proposamenak helaraziko dizkio ikastetxeari eta, datorren ikasturteari begira, Ikuskaritzak jarraipena egiteko erabili beharreko prozedurari buruzko gomendio eta proposamenak emango ditu.

Esku hartzeko era honek Ikuskaritzaren jarduera guztiei eragiten die. Jarduera horiek era integratuan egin behar dira ikastetxean, Ikuskaritzaren hiru urteko eta urteko planetan planteatutako helburuekin bat etorrira. Esparru horretan, ikasturte honetan ondorengo jarduera espezifikoak egingo dira:

- Hamaika Eskuren jarraipena (1. urtea)

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sail honen jarraipena, aurreikusitako hiru urteetako 1.ean.

- Programazioen, irakasleen prestakuntzaren eta ikasleen ebaluazioaren jarraipena eta ebaluazioa.

EHUK diagnostiko-ebaluazioaren emaitzetatik abiatuz, programazio didaktikoak, irakasleen prestakuntza eta ikasleen ebaluazioa, egin duen “*balio erantsi handiko ikastetxeen ezaugarriak eta praktika onak*” ikerketaren ondorioei zuzenean lotutako jarduera-ildo batzuk selekzionatzeko prozesuaren jarraipen espezifikoa.

- Sailaren eskaerak (arau-kontrola eta programen jarraipena).

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ezarritako programen (Hauspoa, Hezkidetzeta Plana ...), Ikuskaritzaren planetan azaldutako esku-hartzeen ondoriozko alderdien (diagnostiko-ebaluazioa, zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa, eskola-emaitzen analisia, OOG berritzea ...), Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saitetik bertatik sortutako eskaeren (2 urtekoen laguntza-pertsonalaren egoera, Erljiioaren eskaintza ...) eta araudiari lotutako alderdien jarraipena egitea.

4.6 Eskola-giroaren jarraipena egitea: hezkuntza-erkidegoaren eskubide eta eginbeharrak beteko direla bermatzeko elkarbizitzaren kudeaketa.

Eskola-jazarpenaren edo elkarbizitzaren kontrako beste portaera batzuen jarraipena egiten jarraituko du Hezkuntza Ikuskaritzak. *Ikastetxeetan, berdinen arteko tratuak gertatuz gero, jarduteko gida* “berrikusiko da, haren helburua hobeto bete dezan.

Ikasturte honetan jarduera hauek egingo dira:

- Eskola-jazarpenaren kasuen eta elkarbizitza kudeatzeko prozesuaren jarraipena ikastetxeetan.
- Eskola-jazarpenaren protokoloa gaurkotzea.
- Elkarbizitza Planaren eta Hezkidetzeta Planaren gida egiteko prozesuan parte hartzea.

4.7 Ikuskaritzaren prestakuntza hobetzea eta berorren garapen profesionala sustatzea.

Ikuskaritzak jarduteko esparruak eta metodologiak eduki profesional handiko prestakuntza eskatzen dute. Prestakuntza hori etengabe garatu behar da eta horrek informazio- eta prestakuntza-jarduerak etengabe planifikatzea exijitzen du.

Ikasturte honetan jarduera hauek egingo dira:

- Urteko Planen esku hartzeko ildoei zuzenean lotutako alderdiei buruzko informazio- eta prestakuntza-jarduerak antolatzea.
- Ikastetxeen ebaluazioari eta berorietan egin beharreko esku-hartzeari lotutako alderdiei arreta berezia ematea.

Urteko Plan honen IV. eranskinean Prestakuntza Planaren jarduerak adierazten dira.

4.8 Euskarazko komunikazioak sustatu eta hobetzeko jardueren planifikazioa.

Ikuskaritzaren ahozko, idatzizko eta telematika-komunikazioak *Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilpena Normaltzeko Plan Orokorrean (2013-2017)* eta geroago aurrera eraman litezkeen planetan ezarritakora egokitzeko, euskararen erabilpena, idatziz batez ere, hobetu beharko da, barne komunikazio eta txostenetan eta ikastetxeekiko harremanetan erabili beharko da euskara, Euskara Erabiltzeko Planean aurreikusitako kalitateko komunikazioak sustatu beharko dira eta Hezkuntza Ikuskaritzaren prestakuntzarako IRALE programak ematen dituen aukerak erabili beharko dira.

Ikasturte honetan jarduera hauek egingo dira:

- Ikuskaritzan euskara erabiltzeko batzordea sortzea.
- Hezkuntza Ikuskaritzaren prestakuntzarako IRALE programak ematen dituen aukerak erabiltzea.

4.9 Ikuskaritzaren funtzionamendua hobetzeko antolaketa-eredua gaurkotzea. Ikuskarien inplikazioan eta esku hartzeko prozesuan sakontzea.

Ikasturte honetan hasiera emango zaio antolaketaren eredua berrikusteko prozesuari, Ikuskaritzaren funtzionamendua hobetzeko asmoz. Jarduera hauek egingo dira:

- Ikuskaritzaren araudia aztertu eta egitea.
Antolaketari buruzko beste dekretu bat argitara emanaz Ikuskaritza arautzen duen legeria aldatuko da.
- Zonalde burutzen merezimendu-lehiaketa.
Aurreikuspenen arabera, 2014-15eko ikasturtearen hirugarren hiruhilekoan egingo da zonalde burutzak betetzeko merezimendu-lehiaketa.
- Ikuskari guztiek Ikuskaritzaren jardueren kudeaketan parte hartzea.
Ikuskaritza guztiaren inplikazioa eta parte-hartzea sustatzeko eta barne komunikatorako prozesuei laguntzeko, lurralde planek jarduera esanguratsuenetariko bakoitzaren arduradun bat sartuko dute Ikuskaritzako zonalde bakoitzean eta plantilako gehiengo esanguratsu batek lurralde edo zonalde ekipoetan ardurako lanak egiten saiatuko da.

4.10 Ikuskaritzaren funtzionamendua hobetzeko kudeatzeko sistema berrikustea.

Gaurko Hiru Urteko Plan Orokorra indarrean dagoenean, EAEko Hezkuntza Ikuskaritzaren politika eta estrategia (egitekoa, ikuspegia eta baloreak) berrikusi eta gaurkotuko dira, ISO 9001:2008 ziurtagiria izaten jarraituko du eta kalitatea kudeatzeko sisteman sakonduko du, zerbitzua hobeto emateko. Ikasturte honetarako aurreikuspen hauek daude:

- Ikuskaritzaren politika eta estrategia analizatu eta egokitzea.
UNE-EN ISO 9001:2008 arauaren arabera 2008an ISO ziurtagiria lortzera eraman zuen hausnarketa-prozesua hasi zenetik pasa den denbora eta urte horietan plantilan izandako aldaketak kontuan hartuta, ziurtagiria 2014-2017ko aldirako berritzea lortu denean, egoera aztertzen berriz hastea komeni da 2014-2015eko ikasturtean, gaurko plantilaren parte-hartzearekin Ikuskaritzaren politika eta estrategia (egitekoa, ikuspegia eta baloreak) gaurkotu ahal izateko.
- Prozesuen maparen, kodeen eta azpiprocesuen izenen berrikustea.
- Kudeaketa apur-apurka ezartzea V92 aplikazioan.
Aurrerapenak egitea V-92 aplikazio informatikoan azpiprocesuen kopuru esanguratsu bat ezartzeko prozesuan.
- Ikuskaritzaren atari berria diseinatu eta esperimintatzea.
Aurreikuspenen arabera, lehen urratsak emango dira Ikuskaritzaren atari informatiko berria diseinatu eta esperimintatzeko prozesuan.
- Hezkuntza Ikuskaritza Euskalit-ekin lankidetzan ari diren kideen kolektiboan integratzea.
2014-15eko ikasturtean kudeatuko da Hezkuntza Ikuskaritza Euskalit-ekin lankidetzan ari diren kideen kolektiboan integratzeko prozesua.

4.11 Ikuskaritza-funtzioaren ebaluazioa, ikuskariaren garapen profesionala hobetzeko.

Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzaren argibideen arabera, Ikuskaritzan zerbitzu-eginkizunetan ari diren pertsonak ebaluatzen jarraitu behar da, zerbitzu-eginkizun horiek luzatzeko baldintza den aldetik. Ikasturte honetan jarduera hau egingo da:

- Zerbitzu-eginkizunetan ari diren ikuskariei ebaluatzeko prozedura aplikatzea.
Zerbitzu-eginkizunetan ari diren ikuskariei ebaluatzeko prozedura aplikatuko zaie 2014-2015eko ikasturtean, araudiaren baldintzen arabera.

4.12 Berriztapena eta praktika onen trukatzeko sustatzeko beste ikuskaritza eta erakunde batzuekin lankidetzan aritzea.

Hiru Urteko Plan Orokorra indarrean dagoen aldian, Hezkuntza Ikuskaritzaren dimentsio europarra indartzea sustatuko da, Erasmus Plus programaren KA2 jardueran parte hartuz gaitasun profesionalak areagotzeko asmoz.

Beste herrialde eta hezkuntza-sektore batzuetako kideekin lankidetzari hasiera emateaz gain, hezkuntza-ikerketari eta prestakuntza pedagogikoari lotutako beste hezkuntza-ikuskaritza eta antolaketa batzuekin informazioa eta esperientziak trukatzeko prozesua indartuko da.

Ikasturte honetan aurreikuspen hauek egin dira:

- Erasmus Plusen parte hartzeko eskaera.
- Ekimenak jarraitzeko, harremanak eta itunak finkatzea.
- Beste hezkuntza- eta antolaketa batzuekin praktika onak trukatzeko.

5.- HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN PROZESUAK

Gaur egun indarrean dagoen Ikuskaritzaren prozesuen mapa 2011-14ko Hiru Urteko Planean zehaztu eta Kalitatearen Eskuliburuan agertzen dena da.

2014-17ko Hiru Urteko Plan Orokorrean prozesuen mapa berrikustea planteatzen da, "Ikuskaritzaren funtzionamendua hobetzeko kudeaketa-sistemaren berrikuspena" esku hartzeko oinarritzko ildoaren arabera. Izan ere, oinarritzko ildo hori Hiru Urteko Plan Orokorrearen beraren helburuari lotuta dago: "ISO 9001:2008" ziurtagiriarekin jarraitzea eta zerbitzua hobeto emateko kudeaketa-sisteman aurreratzea".

Zentzu horretan, 2014-15eko ikasturtean prozesuen maparen berrikuspena ez ezik, azpi-prozesuen gaurko sailkapena eta izena ere planteatzen dira. Horregatik, 2014-15eko Urteko Plan honetan ez da Ikuskaritzaren prozesuen mapa erreproduzitzen, ezta zerbitzua emateari lotutako prozesuak zehaztu ere.

Plan honen II. eranskinean Ikuskaritzaren prozesuak eta azpi-prozesuak aplikatzeko zehaztapenak adierazten dira.

6.- IKUSKARITZAREN PRESTAKUNTZA

Hiru Urteko Plan Orokorretan agerian jartzen da prestakuntzak, ikuskarrien garapen profesionala hobetu eta sustatzeko elementua den aldetik, duen garrantzia; izan ere, Ikuskaritzaren prestakuntzari espezifikoari zuzendutako helburu bat badago plan orokor horietan, baita hizkuntz normalkuntzari laguntzeko asmoz euskararen erabilpenari lotutako beste bat ere.

Zentzu horretan, Ikuskaritzak jarduteko markoak eta metodologiak etengabe garatzen ari den eduki profesional handiko prestakuntza eskatzen dute eta horrek informazio- eta prestakuntza-jarduerak etengabe planifikatzea exijitzen du; jarduera horien artean berdinaren arteko ikaskuntzak, besteak beste, toki nabarmena bete behar du.

Plan honen IV. eranskinean adierazten den 2014-2015eko ikasturterako Ikuskaritzaren Prestakuntza Planak Urteko Planen esku hartzeko ildoari zuzenean lotutako alderdiei buruzko informazio- eta prestakuntza-saioak antolatzeari ematen dio lehentasuna eta ebaluazioari eta ikastetxeetan esku hartzeari lotutako alderdiei ematen die arreta berezia. Gainera, lehentasunezko arreta emango die Hezkuntza Ikuskaritzaren prestakuntza-premiak jasotzeko emaitzetan lortutako alderdiei (hartzaileak pozik dauden jakiteko inkesta).

Alderdiak hauek dira:

- Hezkuntza-legeria. Araudi berria eta berorren garapena.
- Aplikazio informatikoak, erabilpena eta funtzionamendua.
- Ikuskaritzaren Planen garapenari zuzenean lotutako alderdiak.
- Euskara.
- Prestakuntza juridikoa, administrazio-prozedura.
- Ebaluazioa (zuzendaritza-funtzioa, diagnostikoa ...).
- Ingelesa.
- Elkarbizitza.
- Programazio didaktikoak.
- Irakasleen titulazioak.

7.- URTEKO PLANAREN EBALUAZIOA.

Urteko Plan hau zein mailatan betetzen den ebaluatzeko, Lurralde Arteko Batzordeak eta Lurralde Burutzek egingo dute jarraipena, Zonalde Burutzekin koordinatzeko bileretan eta Zonalde Burutza horien eta berorien zonalde ekipoen arteko bileretan.


2014-2015eko ikasturtearen bukaeran Urteko Plan hau ebaluatuko da, ondorengo alderdien analisia eta ondorioak kontuan hartuta:

- Lurralde Arteko Batzordeak, ikasturtean zehar egiten diren analisi eta balorazioetatik abiatuz, urteko planaren jarraipena egitea, Ikuskaritzak egiten duen lanaren balorazio globala eta kalitatea kudeatzeko sistemaren eraginkortasunari buruz egiten den balorazioa.
- Urteko Planean aurreikusten den prestakuntzaren eta, aurreikusi ez arren, egin denaren eraginkortasuna neurtzea eta indarreko Urteko Planean proposatutako helburuak lortzeko prozesuan eskuratzen diren emaitzak (III. ERANSKINA).
- Hezkuntza Ikuskaritzari egindako auditorien (barne eta kanpokoak) emaitzak.
- Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren barne eta kanpo hartzaileak pozik dauden jakiteko neurketak egitea eta hartzaile horien premiak ezagutzea.
- Hezkuntza Ikuskaritzak eskaintzen dituen zerbitzuen hartzaileen iradokizun, kexa eta erreklamazioak.
- Egitekoa, ikuspegia eta baloreak egokitzeko prozesua eta kalitatea kudeatzeko sistemaren dokumentazioa berrikustearen emaitzak.

Urteko Plan honen ebaluazioa sistema berrikusteko txostenean, Ikuskaritza Nagusiak egindakoa, jasota geratuko da. Txosten horrek, gutxienez, atal hauek agertuko ditu:

- Kalitatea kudeatzeko sistemari, baita kalitateari buruzko politikari eta kalitate-helburuei ere, eragin ahal izango lioketen aldaketak proposatzea.
- Helburuak eta prozesu- eta zerbitzu-adierazleak lortzeko prozesuan eskuratu diren emaitzak.
- Barne eta kanpo auditorien emaitzak.
- Prozesu eta zerbitzuetan gertatutako desadostasunak.
- Jarduera zuzentzaileen eta prebentzio-jardueren egoera.
- Hartzaileak pozik dauden jakiteko neurketak egitea.
- Iradokizunak, kexak eta erreklamazioak.
- Oro har, hobetzeko gomendioak.
- Ikuskaritzak egindako lanaren balorazio globala.
- Lortutako ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko urriaren 7an



José Antonio Romero Escobedo
Hezkuntza ikuskari nagusia

I. ERANSKINA
IKUSKARITZAREN ESKU-HARTZE GARRANTZITSUENAK AZALTZEN DITUEN KRONOGRAMA. 2014-2015eko
IKASTURTEA

	2014				2015						
	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	
Zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa	Dokumentazioaren analisisia 1. urtea: Ikastetxearen Urteko Plana eta zuzendaritzaren proiektua Urtearen gainontzekoa: Ikastetxearen Urteko Plana				O P O R R A K	Zuzendaritzekin elkarrizketa (zuzendaria, ikasketa-burua eta idazkaria)			Txostenak egitea		
Barne eta kanpo ebaluazioak	Hobekuntza-planen jarraipena 2014-15eko Ikastetxearen Urteko Plana					2015eko diagnostiko-ebaluazioaren kontrola			Lehen Hezkuntzako 3.eko ebaluazioan parte hartzea		
